

### Emakume haurdunak malariaren menpe

**M**alaria oso hedatua dagoen herrialdeetan, haurdun dauden emakumeek osatzen dute arrisku-talderik garrantzitsuena. Nairobini (Kenia) lanean diharduen ikertzaile-talde estatubatuarra ohartu denez, haurdunen kasuan, malariaren parasittoa karentan bakarrik aurkitu daitekeen proteina hori itsastan zaio. Batik bat, lehen haurra dakartenak kutsatzen ditu gaitz honek. Para-

sitoek sarritan anemia sortzen dute eta horren ondorioz, emakumeek haur txikiak izaten dituzte edota erditzea aurreratzen zaie. Malariak kutsatutako zelulak A kondroitina izeneko proteinara zuzentzen dira eta proteina hori karentan baino ez dago. Ikertzaileen ustez beraz, A kondroitina da malaria-parasitoaren hartzaile nagusia. Defentsa-sistema ez da oharitzen parasittoa sartzen denean, baina portaera bitxi horren arrazoia zein den ez dago garbi: karentari itsastan zaion parasittoa desberdina izatea edota hartzaileak berezitasun batzuk edukitzea. Korapilo hori askatu nahi dute malariaren aurkako txertoa prestatzeko edo besterik ezean, parasittoa karentari itsastea galarazteko. Azken hori ordea, ez da erraza izango bai parasittoa eta bai hartzaileak aldakorrek baitira.

Ikertzaileen ustez, A kondroitina da malaria-parasitoaren hartzaile nagusia. Defentsa-sistema ez da oharitzen parasittoa sartzen denean, baina portaera bitxi horren arrazoia zein den ez dago garbi: karentari itsastan zaion parasittoa desberdina izatea edota hartzaileak berezitasun batzuk edukitzea.



### Aldaka-hausturei aurrea hartuz

**A**ldaka babesteko diseinu berria egin du Harvard Unibertsitateko ikertzaile-talde batek. Eraginkortasun-testak adituen oniritzia jasotzen badu, hirugarren adinekoen osasun-arazo larrieneraiko bat konponduta izango dute. Aldaka hausteak ondorio latzak dakartza zaha-

rrerentzat. %20ak ez du urtebete baino gehiago bizirautean aldaka hautsi ondoren eta %25ak eritexean eman behar izaten du bizitza osoa.

Babesle berri horrek, zorua kontrako kolpea ahal den neurri handienera leuntzea du helburu. Aurkeztu duten diseinuak U itxura dauka eta 2,5 cm-ko lodiera du. Babesleak poliestireno-tanta eta ur nahasketa darama barnean. Ibiltzerakoan erabiltzaileari ez dio batere trabarik egingo aldaka-babesleak, barneko materiala likidua baita. Babesleak zerbaiten kontra jotzen denean, likido egoeratik solidora igaroko da. Horrela, erortzen dena hezur-hausturatik babestuko du. Laborategi-saiakuntzek frogatu dutenez, erorketa-kolpearen eragina %65ean murrizten du aldaka-babesleak. Diseinatzaileek aitortu dutenez gainera, babeslea zein berau sostengatuko duen arropa berezia, zaharrek janzteko oso erosoak dira.

### Ebakuntzak hiru dimentsiotan

**G**iza gorputzaren barrua arakatu eta ebaketak egiten dituzten kirurgilariei lana erraztuko zaie hemendik aurrera kasko berezi bati esker. Kaskoa buruan, endos-



Sistema berriari esker, endoskopia gorputz barnera sartu eta bisoreaz balliatuz, barrunbeak hiru dimentsiotan ikusi ahal izango ditu kirurgilariek.

kopia gorputz barnera sartu eta bisoreaz balliatuz, barrunbeak hiru dimentsiotan ikusi ahal izango ditu kirurgilariek. Gaur egun hiru dimentsiotan egiten da lan, baina irudiak bi dimentsiotan ikusten dira. Horren ondorioz, ebakuntzak sakonera gutxi gora-behera neurtuta burutzen dira. Endoskopia bidez, gaixoaren barnera argia sartzen da eta gero, fibra optikotik igarota monitorrean islatzen dira barrunbeo irudiak. Irudi horiek bidimentsionalak dira baina metodo berriari esker, ezker-eskuin begientzat irudi bana egiten dira eta pantailetan proiektatuz, kirurgilariek hiru dimentsioko irudi gisa interpretatzen ditu.